

ZARAUTZ / Garai bateko liburuak jasotzen ditu liburutegiak

Gipuzkoan ez da geratzen Frantziskotarrek Zarautzen daukaten liburutegirik bezalakorik. 1905. urtekoa da, beraz 100 urte pasatxo ditu. Bertan frantziskotarren historia guztia jasotzen da. Garai batean frantziskotar etxeko bilera nagusiak egiten ziren bertan, euren eguneroko arazoak ikusi eta frantziskotar bezala, munduari zerbitzeko, eman behar zitzaion erantzuna emateko. Misioetara joaten ziren fraideak bertan prestatzen ziren. Kontu haiek guztiak liburu eta dokumentuetan jasotzen ditu liburutegiak. Haren arduradun nagusia Manolo Beraza fraidea dugu. Lan izugarria egin du guztia mantentzeko. Liburuak oso egoera txarrean zeudela onartzen du; orain berriz txukun-txukun gordeta dituztela dio.

- ¿Zein eratako liburuak jasotzen ditu zuen liburutegiak?

- Liburutegi komentuala dugu; lehengo arazoei erantzuten diona; ez dago modernizatuta; ez dago gaur eguneko libururik. Agian edonorentzat ez du interes handiegia izango, jende oso gutxi etortzen zaigu liburu eske. Baina, bista pozten du, ikusi eta ederra da. Garai bateko liburuak nolakoak ziren jakiteko balio du. Garai bateko doktrinaren liburu eta dokumentuak jasotzen ditugu. 1840an komentua itxi eta sala kapitularra liburutegi bihurtu zen.

- ¿Nola kontserbatu da liburutegia orainartean?

- Izan ditu garai onak eta baita hiru edo lau etsai: pipia, iturkinak, bi hankatako arratoiak, hautsa aparte... baina orain eraberrituta, garai ona dugu berriz.

- ¿Nola duzue banatuta liburutegia?

- Liburutegia egin zenean 28 sailetan sailkatu zituzten liburuak, horietako 4 predikuari, misioak emateari eskaini zioten, etxe honetan nagusiki misiolariak bizi zirelako. Liburu kopuru handia misiolari haiena da. Esku iskribuak, eskuz idazitakoak ditugu, gehienbat debozio liburuak. Euskaldunak sail txiki bat ere badugu, erlijioa zuen helburu, baina euskara saila duen liburutegi bakarra izango da gurea.

- ¿Zenbat liburu jasotzen dituzue bertan?

- Denetara 10.000 fitxatik gora dauzkagu.